

TOLOSAKO BABARRUNA

Hautatutako hazi apartak
sartzen ditugu lurrean
babarrun lekak ateratzeko
gero parda muturrean.

Eguzkia eta euria dira
uzta hazteko baldintzak
ta landareei euskara goxoz
xuxurlatutako hitzak.

ZER OTE DA HORREN INDARTSU ETA
KEMENTSU EGITEN GAITUNA
ZER IZANGO DA PENTSA EZAZU:
TOLOSAKO BABARRUNA (BIS)

Babarrun-biltze garaian dator
hegotik haize epela
arazoak eraman ditzala
hosto eroriak bezala.

Etxean gozo-gozo eltzean
TOLOSAKO BABARRUNAK
prestatu behar ditu, gorputza
bapo berdindu nahi dunak.

ZER OTE DA HORREN INDARTSU ETA
KEMENTSU EGITEN GAITUNA
ZER IZANGO DA PENTSA EZAZU:
TOLOSAKO BABARRUNA (4 ALDIZ)